

Kafetegia



ARITZ GALARRAGA

Bizitza honetan gehixeago gustatzea gustatuko litzaidakeen gauza bat da kafetegia. Ea, azal dezadan ondo: gustatzen zaizkit kafetegiak, zer esanik ez izena ematen dien edaria, ahal dela halako batean lotzen ditut zitak; baina, saiatu arren, ezin izan dut sekula kafetegietan irakurri, adibidez, are gutxiago idatzi, elementu gehiegi daude nire arreta bereganatzen dutenak, hasteko kafe -edo dena delako- edaleak eurak. Ez naiz, ondorioz, eta nire zoritxarrerako, kafetegi irakurle-idazlea. Beste bat da Antoni Martí Monterderen kasua, zeinak idatzi baitzuen *Poética del Café* saiakera esanguratsua.

Bere tesia da kafetegiak gabe ezin izango litzatekeela modernitateak ekarri zuen idazketa eta, are gehiago, modernitatearen ideia bera esplikatzea. Modernitatea bada hitzaren zibilizazioa, mendebaldekoa izan bada, hainbeste denboraz, elkarriketaren kultura, da kafetegietako bizitzak hartu duelako leku zentrala. Kafetegia baita leku bat, espazio bat, instituzio bat, izena ematen dion edaria edateko toki baina puskaz harago doana: bizitza arruntaren etena gertatzen da bertan, eten horretatik hain justu bizitza bera pentsatzeko aukera emanaz. Ez da hainbeste errealitate apartatzea, baizik eta distantzia hartzea, distantzia kritiko, ironikoa, bakartasunari ihes egiteko, elkarrekin pentsatzeko, hiria biziartzeko. Josep Plak idatzi zuen: "Dena gertatzen zen Kafetegietan, eta Kafetegietan gertatzen ez zena ez zen existitzen. Kafetegiaren gainbeherak berarekin dakar zibilizazio oso baten gainbehera".

Kafeak dakar, halaber, eta hedaduraz kafetegiak, adimenaren kitzikatzea, esna-aldiaren luzatzea, heterodoxiaren biziagotzea. Beste debate bat da kafeak hutsa, ebakita, esnearekin behar ote duen -Borgesentzat azken hori omen zen nahasketa gaintiezi- gurean, ordea, ez ote garen izan tradizionalki kafetegi baino taberna zaleak. Zer nahi duzue, hori du bere merituen artean kalimotxo asmatu izanaren herria izateak. ●



Heriotza

Karmele Aierbe Muxika hil da. Ataunen 1951n jaioa, gaztetatik euskararen eta Euskal Herriaren aldeko militantzian engaiatu zen eta hainbat bider atxilotu eta torturatu zuten. HBko mahai nazionaleko kide ohia eta Euskal Herrian Euskaraz-eko koordinatzailea izan zen, baita irakasle ere, Ataun eta Seguran.

Mozal Legea

2019an BBVAn egindako protesta baten harira, sei pertsona identifikatu zituen Ertzaintzak, eta mozal legea aplikatuz horiei isuna jartzea proposatu zuen. Sei kideetako bat absolutu du berriki Gasteizko epaile batek, ekintzari "legezkoa, zilegizkoa eta eraginkorra" iritzirik, eta adierazpen askatasuna mozal legearen aurretik jarri.

Espekulazioa

Aldi honetan Ahatsan (Nafarroa Beherea) burutu dute espekulazioaren aurkako mobilizazioa. Herriko bi etxebizitza 630.000 eta 500.000 eurotan salgai izana salatu dute 200 bat lagunek.